

2021. urtean zehar Balmasedako Lehen Sektorea bultzatzeko laguntzak emateko dirulaguntzen deialdia.

Balmasedako lehen sektorea bultzatzeko laguntzak emateko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek xedatutakoa betetzeko, eskabideak aurkezteko epea zabalduko da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertu eta biharamunetik 2021ko abenduaren 10era arte.

Deialdi honen xehetasun eta baldintzak azaroaren 23ko 0851/2021 Alkate Dekretuaren bidez onartutako laguntzak arautzen dituzten oinarriek xedatzen dituzte, Udalaren web orrian eskuragarri dauden.

Eta hau guztia guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Balmaseda, 2021eko azaroaren 24a. Alkatea.